



Amara Berriko karmenetako jai batzordeko kideak buru-belarri aritu dira lanean, jaiak antolatzeko. **BEÑAT PARRA**

Amara Berriko arrandegiak omenduko dituzte karmenetan

Itsasoarekin hertsiki lotutako hiria da Donostia, eta, hori dela eta, Karmengo jaiak garrantzi berezia izan dute historikoki, baita gaur egun ere. Horrela, kaian ez ezik, beste auzo batzuetan ere ospatzen dira jaiok, hala nola, Amara Berrin.

Beñat Parra Rodriguez

Auzo handia da Amara Berri, eta auzo handi batek jai handiak edo, gutxienez, ugariak behar ditu. Handiak diren edo ez herritarrek epaitu beharko dute, baina ugariak direla ezin da ukatu —ase ezinen batek ukatuko duen arren—, sanjoanak ospatzen baitituzte ekainean, karmenak uztailean eta Superxagu jaiak urrian. Karmengo jaien txanda iritsi da dagoeneko.

«Nahiko festa xumeak dira. Garai batean handiagoak izaten ziren, baina jende gutxi gabiltzanez antolaketan, txikiagoak dira orain», aitortu du jai batzordeko kide Nerea Albisuk, baina txikiak izanda ere, jai batzordekoak nabarmendu du auzoa alaituko dutela aurrean: «Auzo elkarteetan pozik gaude, azken urteotan jende asko gerturatu delako auzo elkartera, eta gauzak

egiteko gogoz dago. Jaietan, agian, jendea ez dago horren inplikaturik, baina gauden gutxiak gogoz eta ilusioz gaude, eta jarraituko dugu auzoa animatzen eta alaitzen saiatzen, jaiekin. Gogoia eta ilusioa ez dizkigu inork kenduko inoiz».

Arrandegiei omenaldia

Amara Berrin, egun, ez daukate itsasorako sarbide zuzena, baina ondo dakite Karmengo Ama Birjina arrantzaleen patroia dela. Hori dela eta, duela urte batzuk egin zuten egitasmo bat berreskuratu dute, berritasun gisa: auzoko arrandegiei omenaldia. «Egin genuenean, oso polita izan zen, eta horregatik erabaki dugu berreskuratzea. Azkenean, beti auzoari jaiak laguntzeko eskatzen diogu, eta, nolabait, laguntza hori bueltatzeko modu bat da. Orduan, kalejiran joango gara arrandegiz arrandegi, Antso Jakitunaren hiribidetik Arcco merkataritza gunearen atzealderaino, arrantzalez jantzita, txistulariekin eta bakoitzari lore sorta bat eman-go diogu».

EGITARAUA

Hori hurrengo asteartean, Karmengo egunean (hilak 16) izango da, baina jaiak, bere horretan, ostiralean hasiko dira, eta asteburu osorako egitarau zabala prestatu dute jai batzordekoek. Ohiko legez, ez dira faltatuko sardina jan eta danborrada arrakastatsuak.

Berritasun gehiago ere badira

Arrandegiei omenaldia egiteaz gain, beste berritasun batzuk ere prestatu dituzte aurtengo karmenarako. Alde batetik, auzoko haurrentzako marrazki lehiaketa egin dute jaien aurretik, eta lan irabazlea, jaietako ikur Karmentxu

Jaiak, bere horretan, ostiralean hasiko dira, eta asteburu osorako egitarau zabala prestatu dute

balea protagonista duena, izango da jaietako liburuxkako azala. Gainera, haur irabazleak saria jasoko du jaietako larunbatean.

Bestetik, igandean bi berritasun izango dituzte, Albisuk kontatu duenez: «Auto klasikoaren erakusketa bat egongo da goizean, eta buelta bat emango dute auzotik ondoren. Eta, eguerdirako, poteo elegantea berreskuratu dugu aurten. Dibertigarria izango da!». ●

ASTEARTEA 16**10:30**

Kalejira omenaldia auzoko arrandegiei, Soinu Alai trikitiak lagunduta.

OSTIRALA 19**Karmengo jaien hasiera****18:30 · Gregorio Ordoñez kalean**

Herri dantza.

19:30 · Gregorio Ordoñez kalean

Sardina jate herrikoa.

12:00-22:00

Feriak.

LARUNBATA 20**09:00**

Diana, udaleko txistulari bandarekin.

11:00 · Gregorio Ordoñez kalean

Aurpegi pintaketa eta haur jolasak.

11:50 · Gregorio Ordoñez kalean

Haurrentzako marrazki lehiaketaren sari banaketa.

12:00-13:30 · Gregorio Ordoñez kalean

Tiki Taka irratia diskofesta.

12:00 · Gregorio Ordoñez kalean

Bote eta toka txapelketa.

**18:00 · Auzoko kaleetatik**

Karmengo danborrada.

22:30 · Gregorio Ordoñez kalean

Nemux DJ-aren diskofesta.

IGANDEA 21**Auzoko kaleetatik**

Soinu Alai trikitia.

10:00 · Gregorio Ordoñez kalean

Auto klasikoaren elkarretaraztea.

11:45

Amara Berriko kaleetan zehar auto klasikoaren ibilbidea.

12:45 · Martzelino Soroa plazan

Poteo dotorea.

13:00 etatik aurrera · Eibar plazan

Aperitiboa, Mamelena elkartean eskainita.

19:00 · Gregorio Ordoñez kalean

Radio Rebelde Cover taldearen emanaldia.

Ondo pasa Amara Berriko karmengo jaietan!

Anoeta Pasealekua, 30, 20014 Donostia ✉ xantijatetxea@gmail.com ☎ 943-45 74 36

Urrats euskaltegia

Ondo pasa Amara Berriko Karmengo jaietan!

www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia